

Donostia, 2018ko azaroaren 16a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

IRISGARRITASUN

UNIBERTSALARI BURUZKO KONTROL-MOZIOA

Amaia Martín Garin Irabazi Donostia udal-taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikularekin bat, honako KONTROL-MOZIO hau aurkeztu du, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak hilabete honetan egindako interpelazioa dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Irisgarritasun unibertsala herritar ororen oinarritzko eskubidea da. Hortaz, gure eguneroko bizitzan, aukera izan behar dugu zerbitzu eta ekipamenduetara sartzeko, beste pertsona batzuekin harremanetan jarri ahal izateko eta aukeratzeko askatasuna izateko, guztiok baldintza berdinetan.

Hiri irisgarri baten alde eginez, bizi-kalitate hobearen alde egiten dugu, gure ekipamendu, zerbitzu eta espazioak erosoagoak, seguruagoak eta erabilerrazagoak bihurtzen baitira eta, beraz, pertsonen autonomia areagotzen baitute.

Donostiako irisgarritasuna hobetzea lehentasunezko erronka garrantzitsua da. Bereziki, beharrezkoa da hiriko garraio-azpiegituren auziari lehenbailehen heltzea, erakundeekin elkarlanean. RENFEren trenen irisgarritasunaren arazoa konpontzeke dago oraindik. Ez da Donostiaren arazoa bakarrik, baina eragin nabarmena du, donostiarrak zein beste herri batzuetakoak izan, gure hirira trenez etorri ezin duten pertsonentzat.

Duela aste gutxi batzuk egoera desatsegin bat bizi izan zen Donostiako Atotxako geltokian. Mugikortasun urriko hiru lagun aldirietako tren batera igotzen saiatu ziren, teoriarik egokituta dagoen bagoi batean, baina ezinezkoa gertatu zitzaizkien, eta ezin izan zuten igo. Gainera, garraio publikoa erabiltzeko ezintasuna gutxi balitz, Ertzaintzak identifikatu eta Renfek salatu egin zituen.

Azken hilabeteetan, alkatea Madrilen izan da, eta Estatuko Gobernuko zenbait kiderekin elkarrizketak izan ditu, Estatuak hirian dituen zenbait azpiegituren harira eta Donostiarako zenbait hirigintza-proiektu aurrera ateratzeko helburuarekin. Hala eta guztiz ere, bilera horietan, alkateak ez du inolako proposamenik egin Donostiako tren-geltokien irisgarritasun unibertsalari buruz.

Hilabete honetako batzordean, Pilar Arana mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak esan zuen gai hori ez dela udalaren eskumenekoa eta, eskumen hori transferitu artean, ez dagoela inolako irtenbiderik.

Arrazoi horiek guztiak direla eta, honakoa aurkezten dugu:

KONTROL-MOZIOA

1. Donostiako udalbatzak udal-gobernuari eskaera egiten dio Eusko Jaurlaritzari eska diezaiola bere gain hartzeko Donostiako RENFE/ADIFen geltokiak egokitzeko kudeaketa-agindua, eskumen horiek EAEko administraziora transferitu bitartean, tresnaren irisgarritasun unibertsala bermatu ahal izateko.

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.